



BALIO PROPOSAMENA

Desgaitasuna, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) definitzen duen moduan, gizakiarentzat normaltzat jotzen den jarduera bat egiteko gaitasunaren edozein murrizketa edo eragozpena da. Definizio honek desgaitasunaren ikuspegi zabala eskaintzen du, pertsonaren funtzioak ez ezik, gizarteak ezarritako mugak eta oztopoak ere kontuan hartzen dituelarik.

Hain zuzen ere, gaur egungo gizartean, desgaitasuna duten pertsonak oraindik ere hainbat oztopo aurkitzen dituzte beren eskubideak erabat baliatzeko. Nahiz eta lege-esparruak hobekuntzak izan eta gizartearen kontzientzia pixkanaka handitzen ari den, oraindik ere badaude jarrera, komunikazio eta egitura mailako oztopoak, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze osoa eragozten dutenak. Horregatik, beharrezkoa da gizarte osoaren inplikazioa, inklusioaren aldeko benetako aldaketa sustatzeko.

Desgaitasun mota ugari dauden arren, bereziki nabarmendu nahi ditugu desgaitasun fisikoa, sentensoriala eta intelektualak.

- Desgaitasun fisikoa: Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak. Adibidez, gorpil-aulkian dabilzanak. Askotan, eraikinetan ez dago arranparik, espaloia estua da edo garraio publikoa ez da egokituta egoten.
- Desgaitasun sentensoriala: Adibidez, entzumen edo ikusmen arazoak dituzten pertsonak. Informazioa jasotzeko zailtasunak izaten dituzte.
- Desgaitasun intelektualak: Ideiak ulertzeko edo adierazteko zailtasunak dituzten pertsonak. Elkarriketetan, izapideetan edo eskolan parte hartzea zaila egiten zaie.

Desgaitasun intelektual eta sentensorialak dituzten pertsonak, hainbat zailtasun izaten dituzte gizartean barneratzeko orduan. Erronka nagusietako bat komunikazioa da, askok ideiak ulertzeko edo adierazteko arazoak baitituzte, eta horrek elkarriketetan, izapideetan edo eguneroko jardueretan parte hartzea mugatzen du. Gainera, informazio publikoa normalean ez da haien gaitasun kognitiboak kontuan hartuta diseinatzeko, eta horrek ulermena eta sarbidea zailtzen ditu. Hezkuntza eta lan arloetan, aukerak urriak dira, eskolak eta enpresak ez baitaude beti beharrezko laguntzak eskaintzeko prestatuta. Ohikoa da, halaber, eguneroko zereginak egiteko kanpoko laguntzaren beharra izatea, eta laguntza-sareen gabeziak haien autonomia nabarmenki murriztu dezake.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonak hainbat oztopo dituzte, eta horiek mugikortasuna, independentzia eta gizartean erabat parte hartzea mugatzen dute. Hiri-azpiegiturak eta eraikinek sarritan eskailerak dituzte arranparik gabe, espaloiek zabalera txikia dute edo garraio publikoa ez da irisgarria, eta horrek zaildu egiten du haien egunerokotasuna hirian zehar mugitu behar direnean. Oinarritzko zerbitzuetara iristeko ere zailtasunak izaten dituzte, hala nola osasun-arreta, hezkuntza edo izapide administratiboak egiterako unean, espazio horiek ez baitaude beti egokituak. Lan-arloan, enpresa askok ez dituzte eskaintzen baldintza irisgarriak ezta benetako enplegu-aukerak ere, eta horrek bazterketa ekonomikoa eragiten du. Ezin dugu ahaztu Euskal Autonomi Erkidegoan desgaitasuna duten biztanleriaren %16,5 langabezian dagoela, biztanleria orokorrarena baino askoz ere handiagoa (Orain, 2023), kontuan hartuta apirilaren 7ko 13/1982 Integración Social de los Minusvalidos legeak (LISMI) desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko eskubidea izango dutela ezartzen duen arren (Lantegi Batuak, 2020). Gorpil-aulkiak, protesiak edo laguntza-gailuak bezalako laguntza teknikoaren gabeziak are gehiago larriagotzen du egoera. Azkenik, jarrera sozial negatiboak



ezjakintasunetik edo deserosotasunetik sortuak bazterketa edo jarrera paternalistak eragin ditzakete, eta horrek haien ongizate emozionalean eragin dezake. Desgaitasun mota hauek ezagutzea eta ulertzea funtsezkoa da gizarte inklusiboago bat eraikitzeko. Sentsibilizazio, prestakuntza eta ikusgarritasun ekintzek lagundu dezakete estigmak apurtzen, jarrerak aldatzen eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta aukerak bermatzen.



Irudia 1. sironacareshop.com

Ezin dugu ahaztu Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 77.000 gizon eta 61.000 emakume baino gehiago bizi direla desgaitasun-egoeran, hau da, biztanleriaren % 6,3, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailak egindako diagnostikoaren arabera. (Orain, 2023). Diagnostikoan bildutako datuen arabera, desgaitasunen bat duten 10 pertsonatik 6-k behe-erdiko ehunekoa dute (% 65 baino gutxiago), eta heren batek desgaitasun handia du (% 65 baino gehiago). Gehienak adinez nagusiak dira (% 4 baino ez dira adingabeak).

Erandion, Bizkaiko udalerrri garrantzitsu batean, desgaitasuna duten pertsonentzako baliabideak eta erronkak ere presente daude. Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, desgaitasuna duten pertsonentzako autonomia eta inklusioa sustatzeko 1 milioi eurotik gorako laguntzak bideratu dira 2025ean (Gipuzkoa gaur, 2025). Hala ere, Bizkaiko desgaitasun-planek adierazten dute parte-hartze eta bizi-kalitate handiagoa lortzeko oraindik ere oztopo ugari daudela (Bizkaia.eus, 2025)

Gure enpresak, Erraztu S.Koop., gaur egun gizartean desgaitasuna ikusgarri egiteko helburuaz jaio da. Izena bera gure balio proposamenaren isla da: gizartea, inklusiboagoa eta bidezkoagoa bihurtzea, eguneroko bizitza errazteko tresnak, formakuntza eta zerbitzuak eskainiz. “Erraztu” esatean, argi geratzen da gure misioa ez dela soilik zerbitzu bat ematea, baizik eta oztopoak murriztea, aukerak zabaltzea eta bizitza errazago eta hurbilago egitea.

Gure balio-proposamenak hiru helburu bete nahi ditu:

- Desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta ongizatea hobetzea.
- Familia zaintzaileei atsedeen-eta laguntza-zerbitzua eskaintzea.
- Gizarte-eragileak (ikastetxeak, enpresak eta administrazioa) benetako inklusiorantz gidatzea.



Modu horretan ERRAZTU-k hiru arazo nagusi konpontzen ditu:

- a) Inklusio errearen falta: Erakunde askok oraindik ez dituzte beharrezko tresnak desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze osoa bermatzeko (irisgarritasun-gabeziak, prestakuntza falta, estereotipoak)
- b) Familia zaintzaileen lanbidea. Desgaitasuna duten pertsonen senide askok atsedetik gabe egiten dute zaintza-lana, eta horrek ondorio emozional, fisiko eta sozial larriak sortzen ditu. Ez dago beti zaintza profesionalik. Nork zaintzen ditu zaintzaileak?
- c) Komunikazio- eta autonomia-zailtasunak. Eguneroko jardueretan parte hartzeko oztopo handiak daude: informazio ulergarria falta, baliabide gutxi, eta askotan ez da kontuan hartzen laguntza mota bakoitzaren egokitzapena.

Zein da orduan gure enpresak benetan proposatzen duen balioa gizartean?

Gure enpresak gizarteari eskaintzen dion benetako balioa desgaitasuna duten pertsonen inklusioa ikuspegi orokor batetik lantzean datza: prestakuntza, aholkularitza, komunikazio-egokitzapena eta esperientzia emozionalak bateratzen ditugu, gizarte-ikuspegia aldatzeko eta aukera berdintasuna sustatzeko.

Lehenik eta behin, prestakuntza eta sentsibilizazio inklusiboa eskaintzen dugu hezkuntza-zentroei, enpresei eta erakunde publikoei. Saio horiek praktikoak eta dinamikoak dira, eta desgaitasuna gertutik bizi duten pertsonen bizipenetatik eta esperientzia errealeetatik abiatzen dira. Horrela, formakuntza jasotzen dutenek ezagutza teorikoa baino gehiago jasotzen dute: enpatia lantzen dute, edota estereotipoak identifikatzen dituzte. Prestakuntza hauek balio kualitatibo handia dakarte (kontzientziazioa, ikaskuntza esanguratsua eta jarrera-aldaketa) eta, aldi berean, balio kuantitatiboa ere bai, aurrez diseinatutako saioak eskaintzen direlako, norbanako bakoitzari egokituta. Ez da berdina lehen hezkuntzako ikastetxe batean ematen den formakuntza, edo bigarren hezkuntzako ikastetxe batean ematen dena.

Bestalde, gure balioaren parte garrantzitsua inklusio-aholkularitza eskaintzea da. Erakunde askok ez dute behar adina ezagutzarik ingurune fisiko, komunikazio-sistema edo lan-dinamikak egokitzeko, eta horrek askotan bazterkeria edo aukera faltak sortzen ditu. Gure aholkularitzaren bidez, espazioak irisgarriago bihurtzen ditugu, edota informazioa ulergarriago egiten dugu. Honek balio erantsia sortzen du gizartean: arriskuak murrizten dira, lege-betetzea errazten da eta erakundeek irudi inklusibo eta arduratsuagoa garatzen dute.

Era berean, material didaktiko egokitua eta komunikazio erraztua eskaintzen ditugu, Komunikazio Sistema Handigarri eta Ordezkoetan (KSHO) oinarrituta. Argazkiak, piktogramak eta sinbolo errazak erabiltzen ditugu, informazioa edo prestakuntza desgaitasun mota ezberdinetara egokituz.

Bestalde, tailer emozional eta praktikoen bitartez desgaitasuna duten pertsonen bizipenak transmititzen dira, eta gure tailerrak ez dira eduki teorikoen transmisio hutsa bihurtzen.



Baina gure balio-proposamenaren benetako ardatza familientzako zaintza-eta/edo atsedeen-zerbitzua da. Desgaitasuna duten pertsonen zaintzaren bitartez, familiak lasaitasuna, denbora libre pixka bat eta ongizate emozionala berreskuratu ahal izan dezan errazten dugu. Zerbitzu honek balio sozial handia sortzen du, zerbitzu berritzailea izanik, beharrian erreal bati erantzuna emanaz familia zaintzaileen lanbidea arintzen baitu.

Eta laburbilduz....zerk bereizten gaitu gure lehiakideengandik?

Alde batetik gure lantaldeak desgaitasunarekin lotutako esperientzia gertutik bizi du, eta horrek sinesgarritasuna eta konfiantza ematen dio gure proiektuari. Enpresa inklusiboa gara, eta kooperatiba izaerak parte-hartzea eta balio sozialak bermatzen ditu. Zerbitzuen eredua integrala da, hau da, prestakuntza + aholkularitza + material egokitua + zaintza + sentsibilizazioa dira gure helburu. Tokiko sarearekin lan egiten dugu (elkarteak, udalak, hezkuntza-zentroak...), erantzuna errealista eta komunitatean errotua izan dadin. Horrela, pertsonen ongizatea eta gizarte-eraldaketa modu eraginkorrean uztartzen dituen balio-proposamen sendoa eskaintzen dugu.

Erraztuk gizarteari ematen dion benetako balioa ingurune inklusiboak sortzea da, prestakuntzaren, aholkularitzaren, komunikazio irisgarriaren eta laguntza-zerbitzuen bidez, oztupoak murriztuz eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako eta haien familientzako aukera-berdintasuna sustatuz.

Horrek laburbiltzen du:

Zer egiten dugun: prestakuntza, aholkularitza, material egokituak, tailerrak, atsedeen zerbitzua.

Zergatik den baliotsua: autonomia hobetzea, familiaren ongizatea, araudia betetzea, gizarte-aldaketa.

Zerk bereizten gaituen: ikuspegi integrala + esperientzia zuzena + tokiko lankidetzak.



Iturriak

- <https://bilbaohiria.com/bilbao/situacion-y-desafios-de-las-personas-con-discapacidad-en-el-pais-vasco/>
- Bizkaiko foru Aldundia. Bizkaia.eus, 2021. Bizkaian desgaitasuna duten pertsonen partehartzerako eta bizi kalitaterako plana, 2021-2023.
<https://www.fundacioncaser.org/actualidad/te-acompanamos/barreras-discapacidad-tipos>
- <https://www.cuidopia.es/sites/default/files/guides/Gu%C3%ADa-respiro-Pa%C3%ADs%20Vasco-2-edicion.pdf>
- Gipuzkoa Gaur, 2025.
<https://www.gipuzkoagaur.com/2025/01/03/bizkaiak-miloi-bat-euro-baino-gehiago-emango-ditu-desgaitasuna-duten-pertsonentzako-autonomia-eta-inklusioa-sustatzearren/>
- GUREAK
- Lantegi Batuak, 2020. *Estudio sobre la contratación de personas con discapacidad en empresas de Bizkaia*
- Microsoft Copilot. (2026). Logotipo generado por inteligencia artificial para “Erraztu S.Coop.” [Imagen generada por IA].
- Orain, 2023.
<https://orain.eus/es/actualidad/sociedad/2023/09/20/el-6-3-de-poblacion-vasca-vive-en-situacion-de-discapacidad/>
- Organización Mundial de la Salud
<https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/disability-and-health>
- <https://tobiasemanuel.org/dificultades-tienen-las-personas-con-discapacidad-intelectual/>

IRUDIAK:

- Irudia 1.
https://sironacashop.com/cdn/shop/articles/discapacidad_fisica.png?v=1704274466&width=1920